



Ikasleendako diru-laguntzak

TARIFA SOZIALA. Tarifa soziala izango dute Oinarrizko Errenta/Etxebizitza gastuetarako diru-sarrera osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun diren pertsonak. Horretarako, nahikoa izango dute Euskarategian agiria aurkeztea. Aipatutako gizarte-laguntzarik ez dutenek tarifa soziala eskatu nahi izanez gero, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzura jo beharko dute, eta beharrezkoak diren izapideei ekin. Tarifa soziala jasotzeko eskubidea dutenek **matrikularen % 40** ordainduko dute. Kurtso-amaieran, **%85**eko asistentzia betez gero, ordaindutako **kopuru osoa** itzuliko zaie.

BEKA. Beka-eskaria egiteko, etxeko bizikide-kopurua kontuan hartuta, gehienez honako diru-sarrera garbia (**likidazio-oinarria**) onartuko da:

Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia	Bizikide-kopurua	Diru-sarrera garbia
1	10.668,00 €	4	27.069,00 €
2	17.377,00 €	5	30.717,00 €
3	22.820,00 €	6	34.241,00 €

Baremo horren barruan egonez gero, honako agiriak aurkeztu beharko dira **2013.10.31**rako:

1. Matrikularen ordainagiria.
2. 2012ko errenta-deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zergatia adierazten duen ziurtagiria.
3. Bizikidetza-agiria.

Beka-eskaria egin, eta kurtso-amaieran **%85**eko asistentzia betez gero, ordaindutako **kopuru osoa** itzuliko da.

- **FAMILIA BEREKO KIDEAK.** Elkarrekin bizi diren familia bereko bi lagunek izena emanaz gero, 1'5 matrikula ordainduko dute; hiruk emanaz gero, berriz, 2 matrikula. Horretarako, Idazkaritzara jo beharko dute ordaindu beharreko kopurua zehazteko. Bestalde, **2013.10.31 baino lehen** ekarri beharko dituzte ordainagiriak eta bizikidetza-agiria.
- **ERRETIRATUAK eta FAMILIA UGARIAK.** Matrikularen ordainagiriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte **urriaren 31**rako: familia ugarietako kideek, **familia ugarien txartela**; eta erretiratuek, **pentsionista-txartela**. Kurtso-amaieran **%85**eko asistentzia betez gero, ordaindutako kopuruaren **% 60** itzuliko zaie
- **LANGABETUAK:** Matrikularen erdia ordainduko du.
- Gainerako ikasleei, ikasturte-amaieran, ordaindutakoaren **%25** itzuliko zaie, **%85**eko asistentzia betez gero.

Diru-laguntza hauek jasotzeko, nahitaez Bergaran erroldatuta egon beharra dago.

Diru-laguntzak jasotzeko, **%85**eko asistentzia bete beharko da. Justifikatu nahiz justifikatu gabeko hutsegiteak gainerako **%15**ean sartuko dira. Itzuli beharreko kopurua aurrekontuetan esleitutakoa baino altuagoa izanez gero, banaketa proportzionala egingo da.